

IRAILAK 18, OSTIRALA, ARRATSALDEKO 6TAN

## KONZENTRAZIOA

HEZKUNTZA SAILEKO DELEGARITZAN, DONOSTIAN

Donostian, 2020ko irailaren 4ean

Ikastetxetako gurasook kezkatuak aurkitzen gara 2020-21 ikasturtearen aurrean. Egun batzuk besterik ez dira geratzen ikasturtea hasteko eta ez dugu inongo erantzunik jaso planteatzen diren hainbat zalantzen inguruan.

2020ko martxoaren 12an izan zen iazko ikasturtearen azken klase presentziala. Guztiok harrapatu gintuen ezustean eta bakoitzak ahal genuen moduan moldatu genuen ikasturte amaiera. Lau hilabete horietan hainbat arazo agerian geratu ziren.

Nahiz eta egoera berriak informazio nahasi eta ziurgabetasuna ekarri, uste dugu hainbat neurri hartzeko informazio nahikoa badagoela. Hala ere, ez dugu topatu Hezkuntza Saitetik, ez eta beste administrazio inplikatuaren partetik ere, mahai gainean dauden arazoei soluzioak bilatzeko eta erraztasunik emateko inongo borondaterik.

Egoera honek, gure seme-alabei eta, noski, gurasoei ere, arlo guztietan ondorio latzak ekarriko dizkigula badakigu. Horregatik guztiagatik gure kezkak eta aldarrikapenak hiru multzotan biltzea pentsatu dugu neurri horiek hartzeko gaitasuna duenari lana errazteko asmoz.

### **1-AURREZ-AURREKO KLASEAK BERMATZEA NAHI DUGU**

Ezinbestekotzat jotzen dugu, ikasturteak, ahalik eta normaltasun maila handiena izan dezan, aurrez-aurrekoa izatea. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu segurtasuna bermatuko dituzten neurriak hartzea. Ez dugu, gure seme-alabak pantaila baten aurrean hezitzea nahi.

### **2-BALIABIDEAK BEHAR DITUGU**

Segurtasun hori bermatzeko protokoloa argitaratuta dago, baina bertan, bete behar diren neurriez haratago, ez da neurri horiek bermatzeko soluzio konkreturik ageri; eta ikastetxeen esku utzi dute ardura guztia. Nola beteko dugu protokoloa egoera normal baterako pentsaturiko medioekin? Distantziak mantendu, garraioa burutu, bazkaldu, jolastu, kirola egin, ikasi,.....Baliabide pertsonalak eta materialak behar ditugu horretarako: irakasle gehiago, begirale gehiago (garraiorako eta jangelarako), zaintzaile gehiago, espazio gehiago, ordenagailu gehiago, segurtasuna bermatzeko gailuak eta produktu gehiago, lekuak egokitzeko elementuak, obrak egitea,..... Nahiz eta kurtso hasiera hemen izan, borondaterik badago garaiz gabiltza oraindik. Baliabide horiek gabe, hainbat iharduera bertan behera geratu beharko dira, horrek suposatzen duen guztiarekin. Ikastetxeetako bizitza talde bakoitzak bere gelan egotera murriztu daiteke; mobilitatea eta aisialdia oso

mugatuak geldituko direlarik. Guzti horrek ondorio latzak izango ditu gure seme-alabentzat jarreran, motibazioan, eta noski, baita osasun fisikoan eta mentalean ere.

### 3-KONTZILIAZIOA

Segurtasun neurriak protokoloak dioen bezala betetzeko aukera edukita ere, haurrak etengabe etxean geratu beharko direla aurreikusten dugu. Katarro baten sintomak izanda ere ikastetxeek ez dutelako arriskurik nahiko. Egoera horrek, gurasoei karga handia suposatuko digu, izan ere, asko gara etxetik kanpo lan egiten dugunok. Konponbideak behar ditugu hurrekin etxean eta lanik egin gabe geratu beharko garenontzako.

Horregatik guztiagatik, gure sema-alaben osasunagatik (mentala eta fisikoa), ongi-izatearengatik, segurtasunarengatik, eta gurasoonagatik, kontzentrazioa konbokatu dugu irailaren 18rako, arratsaldeko 18:00tan, Hezkuntza Sailako delegaritzaren aurrean, eta ondoren udaletxera hurbilduko gara.

Sinatuta: **“Baikara”** Gipuzkoako IGEen federazioa, **“Ibaigurasoak”** Ibai Ikastolako Ikasleen Guraso Elkarte, **“Jakingura”** Jakintza Ikastolako ikasleen Guraso Elkarte, **“Ikasbide”** Ikastolako Ikasleen Guraso Elkarte, **“Mendizorrotz”** Igeldoko Guraso Elkarte, **“Luberri Bostak”** Luberriko Guraso Elkarte, **“Urdintxo”** Intxaurrendoko ikastolako Guraso elkarte, **“Gorgain”** Amassorrain Ikastolako Guraso Elkarte, **“Latzaga”** Aitor Ikastolako Guraso Elkarte, **“Amara Berri”** Amara Berri Ikastolako Guraso Elkarte, **“Aiete”** Ikastetxeko Guraso Elkarte



18 DE SEPTIEMBRE, VIERNES, A LAS 6 DE LA TARDE

## **CONCENTRACIÓN**

DELEGACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN EN DONOSTIA

San Sebastián, 4 de septiembre de 2020

Los padres y las madres de los centros nos encontramos preocupados ante el curso 2020-21. Quedan sólo unos días para que comience el curso y no hemos recibido respuesta alguna sobre las dudas que se plantean.

El 12 de marzo de 2020 tuvo lugar la última clase presencial del curso pasado. Nos pilló a todos por sorpresa y cada uno arreglamos el final de curso como pudimos. Durante esos cuatro meses se evidenciaron varios problemas.

A pesar de la confusión informativa y de la incertidumbre generada por la nueva situación, creemos que existe información suficiente para tomar una serie de medidas. Sin embargo, no hemos encontrado desde el Departamento de Educación, ni por parte de otras administraciones implicadas, muy poca voluntad de buscar soluciones y dar facilidades a los problemas que están encima de la mesa.

Sabemos que esta situación nos va a traer consecuencias fatales en todos los ámbitos, también a nuestros hijos y, por supuesto, a las madres y padres. Por todo ello hemos pensado agrupar nuestras preocupaciones y reivindicaciones en tres grupos con el fin de facilitar la labor a quien tenga capacidad para adoptar estas medidas.

### **1-QUEREMOS QUE SE GARANTICEN LAS CLASES PRESENCIALES**

Consideramos imprescindible que el curso escolar, para que tenga el mayor grado de normalidad posible, sea presencial. Para ello, vemos necesario adoptar medidas que garanticen la seguridad. No queremos que nuestros hijos se eduquen delante de una pantalla.

### **2-NECESITAMOS RECURSOS**

El protocolo para garantizar esa seguridad está publicado, pero en él, más allá de las medidas que se deben cumplir, no aparece ninguna solución concreta para garantizar esas medidas; y se ha delegado toda la responsabilidad en los centros. ¿Cómo vamos a cumplir el protocolo con los medios pensados para una situación normal? Para ello necesitamos recursos personales y materiales: más profesores, más monitores (transporte y comedor), más cuidadores, más espacios, más ordenadores, dispositivos y más productos para garantizar la seguridad, elementos de acondicionamiento de espacios, realización de obras,.. Aunque el

comienzo de curso esté aquí, si hay voluntad todavía estamos a tiempo. Sin estos recursos, habrá que suspender varias actividades, con todo lo que ello supone. La vida en los centros se puede reducir a que cada grupo esté en su aula, quedando muy limitada la movilidad y el ocio. Todo esto va a tener graves consecuencias para nuestros hijos e hijas en la actitud, en la motivación, y por supuesto en la salud física y mental.

### 3-CONCILIACIÓN

Aun teniendo la posibilidad de cumplir las medidas de seguridad como dice el protocolo, prevemos que los niños deberán quedarse en casa permanentemente. Porque aun teniendo los síntomas de un catarro los centros escolares no querrán correr riesgos. Esta situación nos va a suponer una gran carga para los padres y las madres, ya que somos muchos los/las que trabajamos fuera de casa. Necesitamos soluciones con los/las niños/as en casa y para los que nos tendremos que quedar sin trabajar.

Por todo ello, por la salud (mental y física) de nuestros hijos, por su bienestar, por su seguridad y por el de los padres y las madres, hemos convocado una concentración para el día 18 de septiembre, a las 18:00 horas, ante la delegación del Departamento de Educación, y después nos acercaremos al Ayuntamiento.

Firmado: **“Baikara”** Gipuzkoako IGEen federazioa, **“Ibaigurasoak”** Ibai Ikastolako Ikasleen Guraso Elkarte, **“Jakingura”** Jakintza Ikastolako ikasleen Guraso Elkarte, **“Ikasbide”** Ikastolako Ikasleen Guraso Elkarte, **“Mendizorrotz”** Igeldoko Guraso Elkarte, **“Luberri Bostak”** Luberriko Guraso Elkarte, **“Urdintxo”** Intxaurrondoko ikastolako Guraso elkarte, **“Gorgain”** Amassorrain Ikastolako Guraso Elkarte, **“Latzaga”** Aitor Ikastolako Guraso Elkarte, **“Amara Berri”** Amara Berri Ikastolako Guraso Elkarte, **“Aiete”** Ikastetxeko Guraso Elkarte

